

## *Etxean kontu kantari*

### *Senda mina putz urdina*

Senda mina,  
putz urdina.  
Joan da, joan da  
zure mina.

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

\*Hitz magikoak minak sendatzeko. Goxo-goxo ukituz eta putz eginez sendatzen dira gaitz guztiak.

### *Txalo-txalo txalotxin*

Txalo-txalo txalotxin,  
zatoz etxera Matxin,  
txaloa dago adarrean,  
bere aulkitxo nabarrean;  
txano txinebailesta,  
etxera nahi ezta!

### *Txalo-txalo txalotxin*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txalo-txalo txalotxin  
hator etxera Mattin,  
taloa xehetu kabarran  
(haurraren izena)ren belarran.

\* Txaloak eginez jolas egiteko; eta kili-kiliak

### *Ala kinkirrinera.*

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Ala kinkirrinera,  
Ala samurrera.  
Maria plaza berriko  
Jira hadi beste aldera

\* Korro jolasa, norberaren izena esaten denean hau atzera begira geratuko da.

Bat eta bi, sorgina etorri

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkartearen.

Bat eta bi,  
Sorgina etorri,  
Soka kendu  
Zulora eramanez.  
Afaldu gabe  
Ohera joan.

\* Soka saltoan ibiltzeko

Akerra ikusi dugu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartearen.

Akerra ikusi dugu baratzean jaten,  
makila ikusi dugu aker hori jotzen.  
Makilak akerra, akerrak artoa akerra ken  
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Sua ikusi dugu makila hori erretzen,  
ura ikusi dugu, su hori itzaltzen.  
Urak sua, suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.  
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken

Behia ikusi dugu, ur hori edaten,  
soka ikusi dugu, behi hori lotzen.  
Sokak behia, behiak ura, urak sua,  
suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.  
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Xagua ikusi dugu, soka hori eteten,  
katua ikusi dugu, xagua harrapatzen.  
Katuak xagua, xaguak soka, sokak behia  
behiak ura, urak sua, suak makila  
makilak akerra, akerrak artoa  
akerra ken.  
Baratzetik akerra ken,  
ken, ken, ken, ken ...

\*Nahastu gabe ikasi eta kantatzeko edota antzetzeko

### Lehenengotxu hori

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Lehenengotxu hori  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
trokotza duk hori.

Bigarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
bizkorra duk hori.

Hirugarren hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
luzea duk hori.

Laugarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
lerdoa duk hori.

Bosgarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
txatxarra duk hori.

\* Atzamar bakoitza eragingo da kantaren erritmoan, tartetan txaloak joko dira.